

Euskarazko izen arrunten proposamena

Ratites taldearentzat

*Palaeognathae* infraklasea:

*Struthioniformes*, *Rheiformes*, *Apterygiformes*,

*Casuariiformes* eta *Tinamiformes* ordenak



**EUSKAL**  
**BATZORDE ORNITOLOGIKOA**  
**COMITÉ ORNITOLÓGICO**  
**DE EUSKADI**

2024ko abenduan

Asier Sarasua Aranberri

Euskal Batzorde Ornitologikoa

# Izen arrunten proposamena Ratites taldearentzat

5 familia, 14 genero eta 59 espezie

Erratiteak (Ratites) antzeko ezaugarriak dituzten hegazti paleognatoen talde parafiletikoa dira. Bost hegazti ordena dira talde honetan sailkatzen direnak (ordena bakoitza familia bakarrarekin): Struthioniformes, Rheiformes, Apterygiformes, Casuariiformes eta Tinamiformes. Dagoeneko desagertuta dauden moak eta epiornitidoak ere talde honetan sailkatu ohi dira. Guztira 59 espezie dira, gehienak hego hemisferiokoak.

Euskarazko izenei dagokienez, erratiteen artean ditugun 5 ordenatako kideek badute izen generikoa euskaraz eta horrela izendatzen ditugu, **ostrukak, ñanduak, kiwiak, kasuarioak** (eta emua) eta **tinamuak**.

Izen generikoa izan arren, 59 espezie horiek ez dute izen espezifikorik euskaraz. Txosten honetan tradizioan oinarritutako proposamenak egiten ditugu talde osoarentzat, batez ere espezie bakoitzaren izen zientifikoa, ezaugarri fisikoak eta hedadura geografikoa aintzat hartuta eta, kasurik gehienetan, inguruko hizkuntzen ereduak ere gainbegiratuta eta koherentzia interlinguistikoa ere kontuan harturik.

Izenak proposatzeko orduan “*Animalien euskarazko izenak finkatzeko oinarrizko irizpideak*” dokumentuan zehazten diren jarraibide formal eta linguistikoak jarraitu ditugu.

## Struthioniformes ordena

Talde handi honetako ordena eta familia ezagunena, seguru asko, Afrikan bizi diren 2 espeziez osatua, *Struthio camelus* eta *Struthio molybdophanes*. Izen generikoa nahiko estandarra da inguruko hizkuntza guztietan, gehienetan jatorri berekoa (*ostrich*, *autruche*, *estruç*, *Strauss* eta abar).

### *Struthio camelus*

Common Ostrich (EN), Avestruz común (ES), Autruche d'Afrique (FR,) estruç comú (CA), Strauß (DE), Struzzo (IT).

- Ostruken artean dauden bi espezieen artean ezagunena, zabalduena eta arruntena.
- Inguruko hizkuntzetan ez du espezifikatzaile berezirik, ez bada "arrunt" edo "afrikar".

Proposamena: **ostruka arrunt**

### *Struthio molybdophanes*

Somali Ostrich, Avestruz somalí, Autruche de Somalie, estruç de Somàlia, Somalistrauß, Struzzo somalo.

- Ostruka arruntaren kide txikiagoa.
- Somalia inguruan bizi da eta inguruko hizkuntzetan ezaugarri hori erabiltzen da izen arrunta ezartzeko. Euskaraz ere eredurik erosoena ematen dut.

Proposamena: **ostruka somaliar**

## Rheiformes ordena

Ostruka afrikarren senide amerikarrak. Talde honetan ere 2 espezie daude eta ñandu izen generikoa hartzen dute, guarani hizkuntzatik eratorria, bere jatorrizko lurraldean ‘ñandu guasu’ (‘armiarma handia’) deitzen diotelako.

### *Rhea americana*

Greater Rhea, Ñandú común, Nandou d’Amérique, nyandú común, Nandu, Nandù.

- Rhea generoan 2 espezie besterik ez daude. *Rhea americana* da bietan handiena eta arruntena, eta izenetan ere horixe adierazten da.
- Izen zientifikoan zehazten den bezala, Ameriketan bizi da. Dena dela, bi espezieak bizi dira Ameriketan, *Rhea americana* askoz zabalduago dagoen arren.
- Hori dela eta, euskarazko izena proposatzeko orduan, ‘nagusi’ espezifikatzailea proposatzen dugu, bere bi ezaugarri nabarmenenak laburbiltzen dituelako nolabait: tamaina eta nagusitasun geografikoa

Proposamena: **ñandu nagusi** (ñandu handi)

### *Rhea pennata*

Lesser Rhea, Ñandú petiso, Nandou de Darwin, nyandú minut, Darwinnandu, Nandù minore.

- Rhea generoko espezierik txikiena.
- Aurrekoa bezala amerikarra, baina Andeetan eta Patagonian bakarrik bizi da.
- Euskarazko proposamena egiteko orduan, beste hizkuntza batzuetako ereduak aztertuta eta guk *Rhea americanarentzat* egiten dugun proposamena ikusita, iruditzen zaigu ‘ñandu txiki’ izan daitekeela aukerarik erraz, eroso, adierazgarri eta erabilerrazena.

Proposamena: **ñandu txiki**

## Apterygiformes ordena

Zeelanda Berriko hegazti endemiko ez-hegalariak dira kiwiak. Ratiterik txikiak dira, oilo baten neurrikoak, eta bost espezetan banatuta daude gaur egun. Oso hego txikiak dituzte eta ia-ia ikusi ere ez zaikie egiten luma sendoen azpian.

Izenei dagokienez, inguruko hizkuntzetan saltsa handi samarra aurkituko dugu, beharbada espezie hauen kokapen taxonomikoa ere zalantzazkoa izan delako sarri (espezie eta subespezie banaketa aldatzen joan da urteotan). Laburbilduz, bi talde handitan banatzen dira taxonomikoki, "kiwi arreen" multzoa batetik (*A. australis*, *A. mantelli* eta *A. rowii*) eta kiwi pikartena bestetik (*A. owenii* eta *A. haastii*), eta izendapenak ere, neurri handi batean, bi talde handi horien menpe izan ohi dira.

Esan bezala, hizkuntza bakoitzak bere bidea jarraitu du animalia hauentzat izen arruntak finkatzeko orduan eta sailkapen taxonomiko berezi horren ondorioz ohikoak dira trinomioak (Little Spotted Kiwi) eta tetranomikoak (kiwi bru de l'illa Sud). Gainera, euskarazko izen arruntak finkatzeko orduan gomendatzen ez diren beste aukera batzuk ere ohiko dira talde honetan, besteak beste, eponimoak (Kiwi de Mantell), banaketa geografikoaren arabera izendapen erlatiboak (kiwi sureño) eta abar.

Aldiz, Zeelanda Berrian bertan tokiko izenak dituzte, tradizio luzekoak, espezie gehienak bereizteko (**tokoeka**, **pukupuku**, **rowi** eta **roroa** izenak erabiltzen dituzte Zeelanda Berrian). Izen horiek, ordea, ez ditugu aurkituko, oro har, gure inguruan aztertu ditugun izendapen ofizialetan (gaztelaniaz, frantsesez, alemanez...).

Inguruko hizkuntzetan ez dagoenez batasun larregirik eta erabiltzen diren ereduak ez direnez garbi eta erosoak, euskarazko izen arruntak zehazteko orduan tokiko hizkuntzetara jotea izan liteke aukeretako bat, Zeelanda Berrian erabiltzen dituzten izenak baliatuz, "kiwi" generikoarekin batera.

Beste aukera bat litzateke eredu nagusia erabiltzea, ingelesarena, 5 kiwi espezieak 2 taldetan banatzen dituen (arreak eta pikartak), eta trinomioen bidez izendatzea 5 espezie hauek.

### *Apteryx owenii*

Little Spotted Kiwi, Kiwi moteado menor, Kiwi d'Owen, kiwi tacat petit, Zwergkiwi, Kiwi macchiato minore.

- Gure lehenengo aukera tokiko izena erabiltzea da (*pukupuku*). Bestela, kiwi pikarten taldeko kide dela adierazi daiteke, txiki/handi dikotomia erabiliz *A. owenii* eta *A. haasti* bereizteko.

Proposamena: **kiwi pikart txiki** (pukupuku kiwi)

### *Apteryx haastii*

Great Spotted Kiwi, Kiwi moteado mayor, Kiwi roa, kiwi tacat gros, Haastkiwi, Kiwi macchiato maggiore.

- Gure lehenengo aukera tokiko izena erabiltzea da (*roroa*). Bestela, kiwi pikarten taldeko kide dela adierazi daiteke, txiki/handi dikotomia erabiliz *A. owenii* eta *A. haasti* bereizteko.

Proposamena: **kiwi pikart handi** (roroa kiwi)

### *Apteryx australis*

Southern Brown Kiwi, Kiwi sureño, Kiwi austral, kiwi bru de l'illa Sud, Südstreifenkiwi, Kiwi bruno meridionale.

- Gure lehenengo aukera tokiko izena erabiltzea da (*tokoeka*). Bestela, kiwi arreen taldeko kide dela adierazi daiteke, hegoaldeko/iparraldeko dikotomia erabiliz *A. australis* eta *A. mantelli* bereizteko.

Proposamena: **hegoaldeko kiwi arre** (tokoeka kiwi)

### *Apteryx mantelli*

North Island Brown Kiwi, Kiwi norteño, Kiwi de Mantell, kiwi bru de l'illa Nord, Nordstreifenkiwi, Kiwi bruno settentrionale.

- Zerrendan ditugun 5 kiwi espezieen artean tokiko izenik ez duen bakarra. 'Kiwi arre' generikotik abiatu gaitzke. Horrek duen arazo handiena da kiwi arreen 3 multzoko taldea ez dela modu bateratuan izendatzen.

Proposamena: **iparraldeko kiwi arre**

### *Apteryx rowi*

Okarito Kiwi, Kiwi de Okarito, Kiwi d'Okarito, kiwi d'Okarito, Okaritokiwi, Kiwi bruno di Okarito.

- Gure lehenengo aukera tokiko izena erabiltzea da (*rowi*); kasu honetan, gainera, izen zientifikoan ere agertzen da. Beste aukera bat izan liteke inguruko hizkuntza gehien bidea jarraitu eta bizilekuaren arabera izendatzea, 'kiwi (arre) okaritoar'.

Proposamena: **kiwi arre okaritoar** (rowi kiwi)

## Casuariiformes ordena

Kasuariformeen artean 2 genero ditugu, Australia eta Ginea Berria artean banatuta. Batetik 3 kasuarioak ditugu (*Casuarus* generoa) eta bestetik emua (*Dromaius novaehollandiae*). Azken horrek dagoeneko badu euskarazko izen arrunta. Kasuarioen kasuan, 3 espezie izanik eta neurriaren bidez erraz sailka daitekeenez, handi-ertain-txiki hirukotea egokia izan daiteke genero hau izendatzeko, euskaraz ditugun beste hirukote batzuen antzera, besteak beste, okil handi, ertain eta txikia edota fragata handi, ertain eta txikia. Horrela, gomendagarriak ez diren beste espezifikatzaile batzuk saihestu ditzakegu, hala nola, 'arrunt', 'ipar-' zein 'hego-' eta beste hizkuntza batzuetan erabili duten 'unikarunkulatu' moduko espezifikatzaile deserrosoak.

### *Casuarus casuarus*

Southern Cassowary, Casuario común, Casoar à casque, casuari comú, Helmkasuar, Casuario meridionale.

- Goian aipatutako irizpidea jarraituz, 'kasuario handi' proposatzen dugu.

Proposamena: **kasuario handi**

### *Casuarus unappendiculatus*

Northern Cassowary, Casuario unicarunculado, Casoar unicaronculé, casuari unicarunculat, Einlappenkasuar, Casuario settentrionale.

- Goian aipatutako irizpidea jarraituz, 'kasuario ertain' proposatzen dugu.

Proposamena: **kasuario ertain**

### *Casuarus bennetti*

Dwarf Cassowary, Casuario menor, Casoar de Bennett, casuari de Bennett, Bennettkasuar, Casuario nano.

- Goian aipatutako irizpidea jarraituz, 'kasuario txiki' proposatzen dugu.

Proposamena: **kasuario txiki**

### *Dromaius novaehollandiae*

Emu, Emú, Émeu d'Australie, emú comú, Emu, Emù.

- Genero monotipikoa. Espezie bakarra dauka eta hizkuntza guztietan dauka izen berbera. Itxura denez, portugesezko 'ema' hitz zaharretik eratorria da, ziurrenik arabierako *naeama* erroa duena eta jatorriz 'ostruka' esan nahi zuena. Euskaraz ere izen berbera proposatzen dugu eta, espezie bakarra duen generoa izanik, ez du espezifikatzaile behar.

Proposamena: **emu**

## Tinamiformes ordena

Ameriketako bizi diren 46 espeziez osatutako familia (eta ordena) da tinamuena. Gehienak neotropikoan bizi dira eta eperren nolabaiteko antza dute, konbergentzia ebolutiboaren ondorioz. Hegan egiteko nolabaiteko gaitasuna izan arren, normalean korrika mugitzen dira eta arrisku bizia dutenean bakarrik egiten dituzte hegaldi laburrak.

Kolore aldetik ez dira nabarmenegiak izaten eta arre-gorritzak dira gehientsuenak, lumaje nahiko kriptikoarekin. Aldiz, habitat ugarian aurkituko ditugu eta, askotan, habitat zehatz hori da espeziea identifikatzeko ezaugarri behinena.

Tinamu izena kali'na hizkuntzako hitza da (Guyanako jatorrizko hizkuntzetako bat). Izen zientifikoan ez ezik, inguruko hizkuntza gehienetako izen generiko gisa ere erabiltzen da. Euskaraz ere halaxe da.

### *Tinamus sp.*

- *Tinamus tao*: **tinamu gris** - Grey Tinamou (EN), Tinamú tao (ES), Tinamou tao (FR), tinamú gris (CA), Taotinamu (DE), Tinamo grigio (IT).
- *Tinamus solitarius*: **tinamu bakarti** - Solitary Tinamou, Tinamú macuco, Tinamou solitaire, tinamú solitari, Zimttinamu, Tinamo solitario.
- *Tinamus osgoodi*: **tinamu beltz** - Black Tinamou, Tinamú negro, Tinamou noir, tinamú negre, Schwarztinamu, Tinamo nero.
- *Tinamus major*: **tinamu handi** - Great Tinamou, Tinamú oliváceo, Grand Tinamou, tinamú olivaci, Großtinamu, Tinamo grosso.
- *Tinamus guttatus*: **tinamu eztarrizuri** - White-throated Tinamou, Tinamú moteado, Tinamou à gorge blanche, tinamú pigallat, Weißkehlthinamu, Tinamo golabianca.

### *Nothocercus sp.*

- *Nothocercus bonapartei*: **mendi-tinamu** - Highland Tinamou, Tinamú serrano, Tinamou de Bonaparte, tinamú de Bonaparte, Bergtinamu, Tinamo delle alture.
- *Nothocercus julius*: **tinamu burugorri** - Tawny-breasted Tinamou, Tinamú cabecirrojo, Tinamou à tête rousse, tinamú cap-roig, Gelbbrusttinamu, Tinamo pettofulvo.
- *Nothocercus nigrocapillus*: **tinamu burubeltz** - Hooded Tinamou, Tinamú cabecinegro, Tinamou à capuchon, tinamú encaputxat, Kapuzentinamu, Tinamo monaco.

### *Crypturellus sp.*

- *Crypturellus berlepschi*: **Berlepsch tinamu** - Berlepsch's Tinamou, Tinamú tizón, Tinamou de Berlepsch, tinamú de Berlepsch, Berlepschtinamu, Tinamo di Berlepsch.
- *Crypturellus cinereus*: **tinamu hausgara** - Cinereous Tinamou, Tinamú sombrío, Tinamou cendré, tinamú cendrós, Grautinamu, Tinamo cenerino.
- *Crypturellus soui*: **tinamu txiki** - Little Tinamou, Tinamú chico, Tinamou soui, tinamú petit, Brauntinamu, Tinamo piccolo.
- *Crypturellus ptaritepui*: **tepui-tinamu** - Tepui Tinamou, Tinamú de tepuy, Tinamou des tépuis, tinamú dels tepuis, Tepuitinamu, Tinamo dei tepui.



- *Crypturellus obsoletus*: **tinamu arre** - Brown Tinamou, Tinamú café, Tinamou brun, tinamú bru, Kastanientinamu, Tinamo bruno.
- *Crypturellus undulatus*: **tinamu izurtu** - Undulated Tinamou, Tinamú ondeado, Tinamou vermiculé, tinamú ondulat, Wellentinamu, Tinamo vermicolato.
- *Crypturellus transfasciatus*: **tinamu bekaindun** - Pale-browed Tinamou, Tinamú cejudo, Tinamou à grands sourcils, tinamú cellut, Brauentinamu, Tinamo dai sopraccigli.
- *Crypturellus strigulosus*: **tinamu brasildar** - Brazilian Tinamou, Tinamú brasileiro, Tinamou oariana, tinamú del Brasil, Rotkehltinamu, Tinamo del Brasile.
- *Crypturellus duidae*: **tinamu hankagris** - Grey-legged Tinamou, Tinamú patigrís, Tinamou de Zimmer, tinamú camagris, Graufußtinamu, Tinamo zampegrigie.
- *Crypturellus erythropus*: **tinamu hankagorri** - Red-legged Tinamou, Tinamú patirrojo, Tinamou à pieds rouges, tinamú cama-roig, Rotfußtinamu, Tinamo zamperosse.
- *Crypturellus noctivagus*: **tinamu hankahori** - Yellow-legged Tinamou, Tinamú patigualdo, Tinamou noctivague, tinamú camagroc, Gelbfußtinamu, Tinamo zampegialle.
- *Crypturellus atrocapillus*: **tinamu kaskabeltz** - Black-capped Tinamou, Tinamú capirotdo, Tinamou à calotte noire, tinamú de casquet, Schwarzkappentinamu, Tinamo capinero.
- *Crypturellus cinnamomeus*: **tinamu kanelakara** - Thicket Tinamou, Tinamú canelo, Tinamou cannelle, tinamú canyella, Buschtinamu, Tinamo di boscaglia.
- *Crypturellus boucardi*: **tinamu papargris** - Slaty-breasted Tinamou, Tinamú pizarroso, Tinamou de Boucard, tinamú pissarrós, Graukehltinamu, Tinamo pettoardesia.
- *Crypturellus kerriae*: **Kerr tinamu** - Choco Tinamou, Tinamú del Chocó, Tinamou de Kerr, tinamú del Chocó, Kerrtinamu, Tinamo del Chocò.
- *Crypturellus variegatus*: **tinamu nabar** - Variegated Tinamou, Tinamú abigarrado, Tinamou varié, tinamú bigarrat, Rotbrusttinamu, Tinamo variegato.
- *Crypturellus brevirostris*: **tinamu papargorritzta** - Rusty Tinamou, Tinamú herrumbroso, Tinamou rubigineux, tinamú rovellat, Rosttinamu, Tinamo rugginoso.
- *Crypturellus bartletti*: **Bartlett tinamu** - Bartlett's Tinamou, Tinamú de Bartlett, Tinamou de Bartlett, tinamú de Bartlett, Bartlettinamu, Tinamo di Bartlett.
- *Crypturellus parvirostris*: **tinamu mokotxiki** - Small-billed Tinamou, Tinamú piquicorto, Tinamou à petit bec, tinamú de bec curt, Kleinschnabeltinamu, Tinamo beccopiccolo.
- *Crypturellus casiquiare*: **tinamu marradun** - Barred Tinamou, Tinamú del Casiquiare, Tinamou barré, tinamú barrat, Bidentinamu, Tinamo barrato.
- *Crypturellus tataupa*: **tataupa tinamu** - Tataupa Tinamou, Tinamú tataupá, Tinamou tataupa, tinamú tatapua, Tataupatinamu, Tinamo tataupa.

### ***Rhynchotus sp.***

- *Rhynchotus rufescens*: **tinamu hegalgorri** - Red-winged Tinamou, Tinamú alirrojo, Tinamou isabelle, tinamú d'ales vermelloses, Rotflügelinamu, Tinamo alirosse.
- *Rhynchotus maculicollis*: **huaiko tinamu** - Huayco Tinamou, Tinamú huayco, Tinamou huayco, tinamú colltacat, Streifenhalstinamu, Tinamo degli huayco.

### ***Nothoprocta sp.***

- *Nothoprocta taczanowskii*: **Taczanowski tinamu** - Taczanowski's Tinamou, Tinamú de Taczanowski, Tinamou de Taczanowski, tinamú de Taczanowski, Taczanowskitinamu, Tinamo di Taczanowski.
- *Nothoprocta ornata*: **pisaka tinamu** - Ornate Tinamou, Tinamú pisacca, Tinamou orné, tinamú ornat, Pisaccatinamu, Tinamo ornato.
- *Nothoprocta perdicaria*: **tinamu txiletar** - Chilean Tinamou, Tinamú chileno, Tinamou perdrix, tinamú de Xile, Chiletinamu, Tinamo del Cile.
- *Nothoprocta cinerascens*: **landa-tinamu** - Brushland Tinamou, Tinamú montaraz, Tinamou sauvageon, tinamú ferésteq, Cordobatinamu, Tinamo di macchia.
- *Nothoprocta pentlandii*: **tinamu andetar** - Andean Tinamou, Tinamú andino, Tinamou des Andes, tinamú dels Andes, Andentinamu, Tinamo delle Ande.
- *Nothoprocta curvirostris*: **ordoki-tinamu** - Curve-billed Tinamou, Tinamú del páramo, Tinamou curvirostre, tinamú de bec corbat, Krummschnabeltinamu, Tinamo beccocurvo.

### ***Nothura sp.***

- *Nothura boraquira*: **tinamu sabelzuri** - White-bellied Nothura, Tinamú ventriblanco, Tinamou boraquira, tinamú ventreblanc, Weißbauchtinamu, Tinamo panciabianca.
- *Nothura minor*: **tinamu txiker** - Lesser Nothura, Tinamú menor, Petit Tinamou, tinamú menor, Wachteltinamu, Tinamo minore.
- *Nothura darwinii*: **Darwin tinamu** - Darwin's Nothura, Tinamú de Darwin, Tinamou de Darwin, tinamú de Darwin, Darwintinamu, Tinamo di Darwin.
- *Nothura maculosa*: **tinamu pikart** - Spotted Nothura, Tinamú manchado, Tinamou tacheté, tinamú tacat, Fleckentinamu, Tinamo macchiato.

### ***Taoniscus sp.***

- *Taoniscus nanus*: **tinamu nano** - Dwarf Tinamou, Tinamú enano, Tinamou carapé, tinamú nan, Pfauentinamu, Tinamo nano.

### ***Eudromia sp.***

- *Eudromia elegans*: **Panpako tinamu mottodun** - Elegant Crested Tinamou, Martineta común, Tinamou élégant, tinamú crestat elegant, Perltinamu, Martinetta dal ciuffo.
- *Eudromia formosa*: **Chacoko tinamu mottodun** - Quebracho Crested Tinamou, Martineta chaqueña, Tinamou superbe, tinamú crestat del Chaco, Schmucktinamu, Martinetta del quebracho.

### ***Tinamotis sp.***

- *Tinamotis pentlandii*: **puna-tinamu** - Puna Tinamou, Kiula andina, Tinamou quioula, tinamú de la Puna, Punatinamu, Tinamo della puna.
- *Tinamotis ingoufi*: **tinamu patagoniar** - Patagonian Tinamou, Kiula patagona, Tinamou de Patagonie, tinamú de la Patagònia, Patagonientinamu, Tinamo di Patagonia.

# Zuzentzaileen ekarpenak eta oharrak

Dokumentu honen lehenengo bertsioa Asier Sarasuak ondu zuen eta, ondoren, beste 8 txorizale euskaldunen artean banatu eta aztertu da: Aitor Galarza, Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur, Maite Laso, Miel Mari Elozegi eta Aitor Leiza.

Hauek izan dira eztabaidagai izan ditugun puntu nagusiak:

- **Ostruketan eta ñanduetan** egoera berbera daukagu. Bi espezie ditugu, bata bestea baino handixeagoa (ez larregi), hedatuagoa (baina eremu geografiko berean, dela Afrikan, dela Ameriketara) eta zertxobait ugariagoa. Nola izendatu ditzakegu? Eta erabili dezakegu eredu berdina 2 taldeentzat? Ostruka handi eta ñandu handi? Ostruka arrunt eta ñandu arrunt? Ez gaituzte erabat asetzen. Beste aukera bat da ‘nagusi’ erabiltzea, espezifikatzaile horrek nolabait aurreko biak hartzen ditu bere baitan (handitasuna eta hedadura). Animalien euskarazko izen arruntak sortzeko orduan ez da asko erabili izendapen hau, oso oker ez bagaude. Taldeko kide batzuei arrotza ere egin zaie (euskalki kontua ere bada). Gaia hobeto aztertzekotan geratu gara. Euskaltermen aurkitu ditugun adibide bakarrak hauexek dira: espezie nagusi (especie dominante), sustrai nagusi (raíz primaria) eta zizare-nagusi (solitaria, *Taenia solium*).
- **Kiwien izenak direla eta**. Inguruko hizkuntzetan ez dagoenez batasun larregirik eta erabiltzen diren ereduak ez direnez garbi eta erosoak, euskarazko izen arruntak zehazteko orduan tokiko hizkuntzetara jotea izan liteke aukeretako bat, Zeelanda Berrian erabiltzen dituzten izenak baliatuz, “kiwi” generikoarekin batera (roroa kiwia, tukupuku kiwia, eta abar). Beste aukera bat litzateke eredu nagusia erabiltzea, ingelesarena, 5 kiwi espezieak 2 taldetan banatzen dituena (arreak eta pikartak), eta trinomioen bidez izendatzea 5 espezie hauek. Taldekideen artean eztabaidatu ondoren, nazioarteko bidea hartzea erabaki da, tokiko izenak sinonimo gisa utzita.
- **Tinamu txikia eta txikerra**. Tinamuen artean bi espezie ditugu nazioartean ‘txiki’ izendatu direnak. *Crypturellus soui* (Little Tinamou, Tinamú chico, Tinamou soui, tinamú petit, Tinamo piccolo) eta *Nothura minor* (Lesser Nothura, Tinamú menor, Petit Tinamou, tinamú menor, Tinamo minore). Euskaraz ‘tinamu txiki’ eta ‘tinamu txiker’ izendatzea erabaki dugu.

Asier Sarasua (Euskal Batzorde Ornitologikoko idazkaria), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientza-Eraztunketarako Elkarte), Jon Zubiaur (Kulixka Irteera Ornitologikoak), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa), Miel Mari Elozegi (Nafarroako Gobernuak Basozaina).

## Euskal Batzorde Ornitologikoa

